

# Bost egun euskarazko itzulpengintzaren munduan

UNAI BREA

KAZETARIA

**U**rriko azken astea Euskal Herrian igaro zuen Leire Segurak, EAEn itzulpengintzaren alorrean lan egiten duten zenbait erakunde bisitatzen. Europako Batzordean egiten duen lana azaldu, eta, ordainetan, euskal itzulpengintzaren alorrean oraintxe egosten ari diren zenbait erretzetaren berri izan zuen bertatik bertara. Hona hemen egun haien kronika behar baino xumeagoa.

Europako Batzordeko Itzulpen Zuzendaritza Nagusiaren Visiting Translator Scheme (VTS) programari esker, bertan lan egiten duten itzulpenzaileek aukera dute Europar Batasuneko unibertsitate, administrazio publiko, nazioarteko erakunde eta enpresa pribatuetara joateko eta haiekin jakintza, jardunbideak eta esperientziak partekatzeko. Programa ezagutu zuenean, Leire Segurak ez zuen zalantzarik izan: euskarazko itzulpengintzaren alorrean lan egiten duten erakundeekin egon nahi zuen.

«Euskara ikasten hasi nintzenean, 21 urterekin, guztiz maitemindu nintzen hizkuntzarekin –azaldu du– eta VTSren berri izan bezain laster, gogoa Euskal

Herrira joan zitzaidan automatikoki». Segurak lau entitaterekin elkartzera erabaki zuen: IVAPen Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO), Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Elhuyar taldea eta UZEI (Terminologia eta Lexikografia Zentroa).

Lehenbiziko hiru egunetan, IZOko eta Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko kideekin bildu zen itzultzaile nafarra, eta Europako Batzordeko Itzulpen Zuzendaritzaren lan-moldeak, baliabide teknologikoak eta terminologia-lana azaldu zizkien. Manu Arrasate IZOko buruak, berriz, zerbitzu horren egoeraz jardun zuen. Eusko Jaurlaritzak euskaratik eta euskararako itzulpengintzaren eta interpretazioaren eremuan dituen premiak asetzea da IZOren zeregina, eta, gainera, hura da erreferentzia euskarazko terminologia juridiko-administratiboa sortzeari dagokionez. Itzulpen gehienak, %98, gaztelaniatik euskarara egiten dituzte.

## EUSKAL TERMINOLOGIAREN LABORATEGIAN

Mertxe Olaizola, IZOko terminologia-arduraduna, eta Araceli Díaz de Lezana, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Plangintzako arduraduna, beren erakundeek euskarazko terminologiaren alorrean egiten duten lanaz aritu ziren. Ildo horretan, ezin aipatzeke utzi Euskalterm, 1986an UZEIk sortutako eta, orduetik, IVAPek eta Hizkuntza Politika Sailak finantzaturako basea, euskarazko itzultzaile guztientzat eta hizkuntza lanabes duten beste askorentzat zeharo ezaguna. Olaizolak eta Díaz

de Lezanak Terminologia Batzordearen lana ekarri zuten gogora; hari dagokio terminologiari dagokionez lehenetasunak ezartzea, termino hobetsiei buruzko erabakiak hartzea (gaztelaniarazko termino batentzat balizko euskal ordain bat baino gehiago dagoen kasuetan, esaterako) eta irizpideak finkatzea. Mertxe Olaizolak, gainera, hurrengo hilabeteetarako erronka bati buruz hitz egin zuen han bildutakoan aurrean: terminologia-zerbitzu berria sortzea, IZOren paraleloa baina ez haren menpekoa, orain arte bezala.

Bisitaren hirugarren egunean, urriaren 27an, Araceli Díaz de Lezana Jaurlaritzak martxan jarri berri duen Hizkuntzaren Teknologien 2021-2024 Planari buruz mintzatu zen. Adierazi zuenez, hizkuntza-teknologietan euskara sendotzea da xedea, teknologia horietan ez dauden hizkuntzak desagertzeko arriskua dutelakoan. *Big data* delakoa, sare neuronalak eta bestelako aurrerapenak baliatzea da asmoa, euskara sustatzeko; zeregin horrek, betiere, administrazioarentzat zehar lerroa izan behar duela azpimarratu zuen Díaz de Lezanak.

## BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK EUSKARAREN MESEDETAN

Arabatik Gipuzkoara. Bisitaren azken bi egunetan, Leire Segura Elhuyarreko eta UZEIko kideekin elkartu zen, hurrenez hurren. Hala, Elhuyarrek azken hamarkadetan egindako lan oparoa ezagutu zuen, hiztegi gintzaren alorreko batik bat. Fundazio horrek garatutako bestelako lanabesik ere izan zuten hizpide; esaterako, Elia,

adimen artifizialean eta sare neuronalen oinarritutako itzultzaile automatikoa.

Ostiralean bukatu zen EBko itzultzailearen bost eguneko ibilbidea, UZEI zentroaren egoitzan, Donostian. Euskararen lexikoa –orokorra zein espezializatua– normalizatzea da haien zeregin na-

gusietakoa; izan ere, UZEIk sortu zuen Euskalterm terminologia-bankua 80ko hamarkadan, arestian esan dugun legez. Horrez gain, hizkuntza-teknologia ere garatzen dute; ildo horretan, eurek sortutako zenbait tresna aurkeztu zizkieten Luxenburgotik joandako bisitariari, hala

nola Gaika, erabilitako terminologia motaren arabera testuak sailkatzeko sistema, eta Idite, itzulpenen diagnostiko terminologikoa eta indarreko arauen arabera gomendioak egiten dituen tresna, zeharo egokia, besteak beste, aspaldiko testuak gaur egungo terminologiari egokitze.

## Leire Segura Garralda

(Itzultzailea Europako Batzordean):

**H**izkuntzekiko grinak bultzatu zuen Leire Segura (Iruñea, 1990) itzulpengintza

ikastera. 2014an, Europako Batzordean lan egiteko oposizioetara aurkeztu zen, baita gainditu ere. Lau urte geroago eskaini zioten lanpostu bat, eta harrezkerotik itzultzaile ari da Luxenburgon, Itzulpen Zuzendaritza Nagusian. Urrian, Euskal Herrian izan zen zenbait egunez, euskarazko itzulpengintzarekin harreman estua duten lau erakunderekin elkartzeko. Orrialdeotan, bere eguneroko lanaren gorabeheraz eta itzulpengintzaren orainaz eta geroaz hitz egin dugu.

### Zehazki, zein da zure lana Europako Batzordean?

Nire lana ulertzeko, jakin behar dugu Europar Batasunak hainbat erabaki

hartzen dituela arlo guztietan: energian, garraioan eta abar. Erabaki edo araudi horiek testu juridikoetan idazten dira, herrialde guztietan aplikatu daitezkeen. Testu horiek erregelamenduak, zuzentarauak eta erabakiak izaten dira, normalean, eta ingelesez idazten dira. Horietako batzuk zuzenean lotesleak dira estatu kideentzat, eta, ondorioz, ezinbestekoa da epaileek, enpresek eta herritarrek testu horiek ulertzea. Beraz, guk ingelesetik gaztelaniara itzultzen ditugu, gure Estatuan erabili ahal izateko eta Europako legea bete ahal izateko.

### Lan handia egin beharko duzue ahalik eta zehatzen itzultzeko...

Testu juridiko horietan terminologia oso garrantzitsua da, eta denbora asko ematen dugu informazioa eta termino zuzenak bilatzen. Zuzentarau bat itzultzen ari bagara, adibidez, oso inportantea da *implementation*, *transposition* eta *application* terminoak bereiztea. Bata edo bestea aukeratzearen ondorioak guztiz desberdinak dira, eta gure lana horixe da: terminoak ongi bereiztea, ulertzea eta gure hizkuntzara itzultzea, ñabardura guztiak gordeta. Baina testu juridiko horiez gainera, bestelakoak ere itzultzen ditugu. Adibidez, herritarrek idatzitako gutunak, edo parlamentarietako batzordeari zuzendutako galderak. Testu horietan gaiak arruntagoak eta hurbilagoak dira, eguneroko bizitzari lotutako galderak. Eta ezin ahaztu txostenak, prentsa-adierazpenak, liburuxkak, webgunerako testuak...

Itzulpenak egiteaz gain, lankideen testuak berrikusten ditugu. Hau da, nik dagokidan testua itzultzen dut, eta, buka-

## «Uste dut giza itzultzaileok beharrezkoak izango garela etorkizunean ere»

tzen dudanean, berrikusten hasten naiz, behin edo bitan erreparatzen dut nik itzulitakoa. Horretarako oso lagungarria da pixka bat itxarotea. «Egoten utzi behar zaio», esan ohi dugu, batzuetan ez baititugu geure akatsak ikusten, nahiz eta bost aldiz irakurri. Beraz, lagungarria da han uztea eta biharamunean jorratzea, burua eta begiak freskoago ditugunean. Bukatzen dudanean, lankide bati bidaltzen diot. Hark berriz begiratzen du akatsik ez dagoela egiaztatzeko, eta niri bidaltzen dit, nik hark proposatutako aldaketak onartzeko ala ez. Hona etorri nintzenez, berrikuspen horiek funtsezkoak izan ziren niretzat, gauza pila bat ikasi nuen eta. Gaur egun ere asko ikasten dut lankideen oharrekin. Badaude beste zeregin batzuk, jakina, baina hori da, gutxi gorabehera, gure egunerokoa.

### Zergatik aukeratu zenuen itzultzaile izatea? Eta zergatik EBn?

Betidunik izan ditut gustuko hizkuntzak. Amak frantsesa daki, baita euskara pixka bat ere, eta horrek jakin-mina piztu zuen niregan. Beraz, unibertsitatean hasi baino lehen, zalantzan egon nintzen: Ikus-

entzunezko Komunikazioa edo Itzulpen-gintza? Lehenengoa aukeratu nuen, baina, ikasketa horiek bukatu bezain laster, argi izan nuen besteak ere egin behar nituela. Oporretan joaten nintzenez eta beste hizkuntzaren bat entzuten nuenean, ezinezkoa zen niretzat belarriak ez zorroztea, ulertu nahian. Tabernetan, beti menuen bertsioak alderatzen nituen, egiaztatzeko itzulpenak ongi eginak ziren ala ez (jarraitzen dut hori egiten, deformazio profesionala da, kar kar). Konturatu nintzen, nola edo hala, hizkuntzak zirela nire etorkizuna, eta helburu horri ekin nion buru belarri.

Gasteizen itzulpen-ikasketak egiten ari nintzela, irakasle batek aipatu zuen Europar Batasunerako oposizioak egingo zituztela. Irakasle hori, Jaione Arregi, Bruselan aritua da interprete, eta beti animatzen ditu ikasleak halakoetan saiatzera. Aurkeztu nintzen, oposizioak gainditu nituen eta itzarote-zerrendan geratu nintzen. Bitartean, Iruñeko itzulpen-entresa batean egin nituen praktikak, eta han jarraitu nuen lanean. Lau urte geroago, Europatik deitu zidaten lanpostu baterako; elkarrizketa egin, eta hona etorri nintzen, Luxenburgora. Itzulpen Zuzendaritza Nagusia bi lekutan dago, Bruselan eta Luxenburgon, baina berrienak hona etortzen gara.

### **Nola egiten duzue lan Europako Batzordeko itzultzaileok, hainbeste hizkuntza-rekin? Zein da hizkuntza-hierarkia?**

Europar Batasunak hiru hizkuntza mota ditu. Lehenik eta behin, 24 hizkuntza ofizialak. Europar Batasunak onartutako hizkuntzak dira, eta funtsezko legedia eta tratatuak 24 hizkuntza horietan idatzi behar dira, estatu kide guztiek bete ahal izateko. 24 bertsio linguistiko horiek Aldizkari Ofizialean argitaratuta daude, eta, ondorioz, guztiek dute balio bera, nahiz eta 23 itzulpenak izan. Han ikusten da hizkuntza horietan benetan egiten dela lan (*working languages* dira, ingelesez esaten dugun bezala), eta ez dela teoria hutsa. Balio bera izatetik dator hizkuntza guztien arteko koherentziari ematen diogun garrantzi handia.

Hizkuntza ofizial horiez gain, bigarren talde bat dugu: prozedura-hizkuntzak, hau da, ingelesa, frantsesa eta alemana. Beste erakunde batzuetan beste izen bat hartzen dute, baina Europako Batzordean «prozedura-hizkuntza» esaten diegu. Eraginkortasuna dela eta, ezinezkoa izango litzateke denbora osoan 24 hizkuntza ofizialak erabiltzea. Europako Batzordeak, adibidez, harreman estuak ditu estatuko adituekin, haiei galdetzen baitie hainbat arlotako egoeraz. Funtzionario eta aditu gehienak bigarren hizkuntza, guztiok konpartitzen duguna, ingelesa da; ondorioz, kontsultak, analisiak, txostenak eta, azken batean, testu juridikoak, ingelesez idazten dira gehienetan. Horregatik daude prozedura-hizkuntzak: testu gehienak hiru hizkuntza horietan izateko eta prozesuak zertxobait azkarragoak izateko.

Eta, azkenik, hirugarren taldea: hizkuntza gehigarriak; adibidez, euskara, katalana edo galiziera. Europar Batasunak onartutako hizkuntzak dira, estatu kideen konstituzioek onartutako hizkuntzak baitira. Hori dela eta, Espainiako herritarrek euskara erabil dezakete Europako erakundeekin harremanetan jartzeko, aukera hori gutxitan erabiltzen den arren.

### **Literaltasuna edo malgutasuna? Diozuezagatik, bigarrenetik asko ez...**

Galdera horri erantzuteko, lehen aipatu dudana hizkuntza guztien arteko koherentzia ekarriko dut gogora. Esan dudanez, 24 hizkuntza ofizialek balio bera dute («24 jatorrizkoen fikzioa», deitzen diogu guk). Hori dela eta, hizkuntza guztiek gauza bera esan behar dute. Gauza bera, eta ez antzekoa. Ondorioz, modu literalegi batean itzuli behar dugu batzuetan, ziur egoteko guztiok gauza bera esaten dugula.

Lehentasun horren ondorioz, gauza arraro bat gertatzen da (jendea harrিতා gertatzen da hau aipatzen dudanean): ingelesezko testuan akats bat baldin badago, nik akatsa mantendu behar dut gaztelaniazko itzulpenean. Bai, horrela da. Nik ezin dut erabaki akats hori zuzentzea. Izan ere, nik zuzentzen badut, kroazia-

rrak ez zuzentzea erabakitzen badu, eta frantsesa ez bada akatsaz oihartzen, pentsa zer-nolako nahas-mahasa sortuko litzatekeen!

### **Akatsa konpondu beharko da, baina.**

Testuaren egileari ematen zaio horren berri, hark jatorrizko testua alda dezan. Orduan, bertsio zuzena bidaltzen badute, guk bertsio hori itzuliko dugu, akatsik gabe. Testua jada Aldizkari Ofizialean argitaratu bada, beste testu bat egin beharko da akats hori espresuki zuzentzeko. Beraz, zure aurreko galderari ongi erantzuteko, ez nuke esango literal-tasuna erabiltzea derrigorrezkoa denik, maiz malguak izan behar baitugu testuak ulergarriak izateko, baina bai fideltasuna, edo zehaztasuna, edo zintotasuna. Hori da inportanteena. Testu mota asko daude, eta testu batzuk egokiagoak dira konponbide originalak aplikatzeko, baina, oro har, oso zehatzak izan behar dugu.

### **Zer iritzi duzu itzulpengintzaren geroaz? Itzultzaile neuronalak, makina eta gizakia...**

Argi dago egoera zinez aldatu dela azken urteotan, lanabes izugarriak ditugu eta: itzultzaile neuronalak, base terminologikoak, terminoak aztertzeke tresna informatikoak eta abar. Gainera, guk erabiltzen dugun itzultzaile neuronalak guk egindako testuak erabiltzen ditu oinarri. Hori dela eta, guk bezala itzultzen du, gure doinu edo ukitu bera dauka. Ikaragarria, benetan. Hala ere, oso kontu handiz erabili behar da.

### **Zergatik?**

Batzuetan *not* hitza (ez, ingelesez) ahazten duelako, adibidez, eta, ondorioz, itzulpenak guztiz kontrakoa esaten delako. Esaldiak oso naturalak dira, oso arinak, baina horrek ez du kalitatea bermatzen! Testu juridikoekin hobeto funtzionatzen du, baina emaitzak txarragoak dira esamoldeen kasuan, edo estilo naturalagoa behar denean, adibidez. Itzulpen neuronalak egiten dituen hutsak ikusita, uste dut giza itzultzaileok beharrezkoak

izango garela etorkizunean ere. Gizakiok gai gara aztertzeko zeinek irakurriko duen testua, zein den testuingurua..., eta alderdi horiek funtsezkoak dira kalitatezko itzulpenak lortzeko. Tresnak zinez lagungarriak izan daitezke; baina horixe dira, tresnak, besterik ez.

**Zenbateko garrantzia du espezializazioak itzulpengintzan? Itzultzaile gehienak eremu orotan aritzen ohituta daukela esango nuke.**

Gaztelania Departamentuan espezializazioa erabili da urte askoan. Itzultzaileak

medikuak, edo kimikariak, edo legelariak ziren, eta haien jakintzak kontuan hartzen ziren testuak banatzeko. Hala ere, azken urteotan gutxitu egin da espezializazio horren balioa, eta itzultzaile guztiok gai guztiei buruzko testuak itzultzeko gauza izatea bultzatu da. Hori dela eta, arrantzari buruzko testu bat itzultzea egokitu ahal zait gaur; bihar, ibilgailuei buruzko zuzentarau bat, eta, etzi, energiari buruzko erabaki bat. Itzultzaileok gai guztiei buruzko informazioa bilatzeko gai izan behar dugu, baita gai horiei dagokien terminologia lantzeko eta erabiltzeko ere. Hori esanda, aipatu

behar dut nolabaiteko espezializazioa dagoela Europako Batzordean dihardugun bi unitateetan [Gaztelania Sailean, orotara, 60 itzultzaile inguru daude, bi unitate horietan]. Gai batzuei buruzko testuak Luxenburgon itzultzen dira, printzipioz; adibidez, energia, garraioa eta osasuna mintzagai duten testuak. Bruselan, aldez, klimari, informatikari eta iruzurrari buruzko gaiak lantzen dituzte, besteak beste. Banaketa hori 2019an hasi zen, berrri samarra da; baina, bai, esan dezakegu espezializazio txiki bat badagoela.

## «Hemen itzultzaile aritzeko oposizioak gogorak dira»

**I**ruñean jaio zen Leire Segura, baina ia beti Burlatan bizi izan da, harik eta 2018an Luxenburgora joan zen arte. Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean (2008-2012) eta Itzulpengintza eta Interpretazioa EHU (2012-2016). Ikus-entzunezkoen arloan, Nafarroako Canal 4 telebistan egin zituen praktikak, besteak beste, eta, itzulpengintza ikasi bitartean, berriz, Centro de Comunicación Internacional enpresan, Iruñean. Hantxe lortu zuen gerora lanpostu bat: «Oso pozik nengoen, lana askotarikoa zelako, eta giroa oso ona. Enpresa horrek itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuak ematen zizkien epaitegiei eta poliziari, eta asko ikasi nuen haiekin». Bertan aritu zen Europako Batzordera joan arte. Oraingo lanean, gaztelaniara itzultzen ditu testuak, normalean ingelesezkoak, baina frantsesezkoak eta alemanezkoak ere egokitzen zaizkio noizean behin. Batzordean itzultzailea izateko egin beharreko bidea xehatu digu Segurak: «Europako Batzordean funtzionario gisa lan egiteko, printzipioz, oposizioak egin behar dira, EPSOK (*European Personnel Selection Office*) antolatutakoak. Itzultzaileentzako oposizioetan parte hartzeko, hiru baldintza bete behar dira: unibertsitateko titulu bat izan (itzulpengintzako edo beste arlo batekoa), ama hizkuntza edo lanerako behar duzun lehenengo hizkuntza primeran menderatzea, eta Europar Batasuneko beste hizkuntza bat oso ongi ezagutzea. Oposizio horiek noizean behin antolatzen dira. 2014an, nik egin nituenean –agian, zertxobait aldatu dira azken urteotan–, hiru zati zituzten. Lehenengoan, hiru ariketa mota zeuden: psikoteknikoak, matematikoak eta beste irakurmen-ariketa batzuk. Bigarren zatian, bi itzulpen egin behar izan nituen, frantsesetik eta ingelesetik gaztelaniara. Bi hizkuntza horiek aukeratu nituen, baina beste hizkuntza-konbinazio batzuk ere aukera daitezke. Proba horretan beste hizkuntzen ulermena eta ama hizkuntzan duzun gaitasuna aztertzen dituzte, hori izango baita, azken finean, geroko lana. Eta hori guztia gaindituz gero, azken zatia Bruselan egiten da. Han talde-dinamika batzuk eta gai bati buruzko aurkezpenak egin behar dituzu. Azken ariketa horiek funtsezkoak dira talde batean nola moldatzen zaren ikusteko, lankideen iritziaik errespetatzen dituzun ala ez, baita denbora laburrean gai bati buruzko informazioa ulertzeko eta azaltzeko gai zaren ala ez. Oposizio gogorak dira». ■